

# Osasun-aseguru pribatua dutenen pertsona kopurua gora doa Euskadin 2004tik, batez ere azken urteetan

Unai Martín



Igoera gehienak enpresek  
edo kolektiboek hitzartutako  
aseguruenak dira

**Iradokitutako aipua:** MARTIN, U. (2020). *Osasun-aseguru pribatua dutenen pertsona kopurua gora doa Euskadin 2004tik, batez ere azken urteetan*. OSEKI Osasun eskubidearen aldeko ekimena-Iniciativa por el derecho a la salud. Eskuragai: <https://www.oseki.eus/eu/arloak/euskadiko-egoera/osasun-sistema/>




Osasun-aseguru pribatu bat dutenek nabarmen gora egin dute Euskadin azken hiru hamarkadetan, batez ere azken urteetan, zeinetan igoera urteko %3tik gorakoa izan baita.

1994tik 2017ra bitarteko tartean osasun-aseguru pribatuek nabarmen egin dute gora. 2017an, zehazki, aseguratutako pertsona kopurua %24,5 gehiago zen 1994an baino, eta aseguratutako pertsonen ehunekoa, biztanleria osoarekiko, %21,1 handiagoa zen. Batez beste, %1 inguruko igoera.

Hazkunde hori, dena dela, ez da prozesu osoan gertatu; izan ere, aldiaren lehen zatian (1994tik 2003ra) aseguratutako pertsonen kopurua egonkor mantendu zen, eta hazkundea 2003tik 2017ra bitarteko aldiari kontzentratu zen. Horrela, azken aldi horretan, aseguratutako pertsonen kopurua %40,3 hazi zen, eta aseguratutako pertsonen ehunekoa %36,1 egin zuen gora; hau da, urteko batez besteko hazkundea %2,9koa eta %2,7koa izan zen, hurrenez hurren. Hazkunde hori handiagoa izan zen azken urteetan. Hala, 2015etik 2017ra bitartean aseguratutako pertsona kopurua ia %6,8 gehiago zen, hots, batez beste %3,4 gehiago urtean.


### 1. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA DUTENEN BILAKAERA. PERTSONA KOPURUA, GUZTIRA, ETA HERRITAR GUZTIEKIKO PORTZENTAJEA. EUSKADI 1994-2017



ITURRIA: EGILEAK EGINDAKOEA EUSTATEN EUSTAT-EN OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKAN (EASP17) OINARRITUTA

Aseguratutako pertsonen portzentaje hazkundera ez zen izan berdina hiru lurralde historikoetan. Hala, aldia osorik hartzen badugu, hazkunde handiena Bizkaian izan zen, bai kopuru absolutuetan zein erlatiboetan. Lurralde horretan, aseguru pribatua dutenen pertsonen portzentajea 5,8 puntu (%27,8) igo zen. Hazkunde absolutua ere handiago izan zen Bizkaian azken aldian (2003-2017), portzentajezko 7,6 puntu izan ziren, Arabako 2,3 punturen eta Gipuzkoako 4,1 punturen aldean. Kopuru erlatiboetan, ordea, hazkundera handiagoa izan zen Gipuzkoan, aseguratutako pertsonen kopuruak %50 gainditu baitzuen.


## 2. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA DUTEN PERTSONEN EHUNEKOAREN BILAKAERA BIZTANLERIA OSOAREKIKO, GUZTIZKOA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. EUSKADI 1994-2017



ITURRIA: EGILEAK EGINDAKOIA EUSTATEN EUSTAT-EN OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKAN (EASP17) OINARRITUTA

Aseguratutako pertsona kopuruen hazkundera poliza kolektiboan gorakadari zor zaio, hau da, enpresek harpidetu-takoari. Hala, poliza horien bitartez aseguratutako pertsona kopurua %287,0 igo zen 1994tik 2017ra bitarteko tartean (%12,5eko igoera urtean) gainerako poliza moten aldean. Poliza mota horien gorakada 1998. urtetik aurrera hasi zen, garbiri, eta igoera areagotu egin zen 2000. urteko hamarkadaren bigarren zatian. Egun, igoera urteko %4,5 izan da 2015etik 2017ra bitarteko tartean. Gainerako poliza motek beheranzko joera arina erakusten dute, familia edo banakako aseguruaren kasuan izan ezik, urtean %3,2 igo baitira 2015etik 2017ra bitarteko tartean.

### 3. GRAFIKOA. OSASUN-ASEGURU PRIBATUA DUTENEN BILAKAERA, POLIZA MOTAREN ARABERA. EUSKADI 1994-2017



ITURRIA: EGILEAK EGINDAKOIA EUSTATEN EUSTAT-EN OSASUN ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKAN (EASP17) OINARRITUTA



ARGITARATUTA: Leioan, Espainian

EDITOREA: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)